

# OTOTXO

Otok bere seme Ototxo akolito sartu dau elizan, akolitoak aparteko grazia daukelako eta bertan burua argitzen jakelako.

Auzoko zurgina il da eta Meza amaierakoan, aldarapean "Libera me" abesten dagozela, abadeari betaurrekoak jausi jakoz lurrera. Ototxok jaso ditu lurretik; baiña, apaizari emon baiño lenago, paltrikeratik musuzapia atera, oso zikiña egoan, eta berarekin betaurrekoak garbitu dauz.

Sakristira eldu diranean Ototxok: abadeari.

—Aizu, antiojuak garbitu dautzudaz.

—Bai. Eskerrak.

—Ez dakizu zergaitik?

—Ez.

—Lurrean mikobrioak artu ebezan eta orreik zure begietan sartu ezker, zer...?

—Eskerrak milla bidar, mutil.

\* \* \*

Illerritik elizara datoztela mutikoak abadeari:

—Aizu, zenbait urte falta jatzuz ilteko?

—Zaarra al naiz, ba?

—Bai, oso zaarra. Eta zenbat urte falta jatzuz?

—Zer, ba?

—Nik zure entierroa joan nai nuke-ta...

—Ordurako aaztuko zara.

—Ez, ez, ez naiz aaztuko; promes egiten dautzut.

\* \* \*

Ototxo egunero joan oi da aszensore edo goragaillu bateau amabigarren etxe-oñera-arte. Baiña, beste lagunik ez ba'dau, zazpigarrenean urtetan dau.

—Eta, zergaitik egiten dau ori?

—Txikia izanik, zazpigarren botoiraiño bakarrik eltzen dalako.

\* \* \*

Ototxo kontu-kontari dabil. Onela diñotso bere lagunari:

—Itxas-ontzi bateau 15 mariñel dagoz, makinetan 10 lagun, kubiartan 8 eta gaiñera sukaldaria eta txo. Zenbat urte ditu kapitanak.

—15 eta 10 eta 8 dira 33 eta beste bi sukaldean, 35 urte.

—Ez.

—Zenbat ba?

—Berrogeita bost.

—Eta, zelan dakizu ori?

—Berak esan daustaleko.

\* \* \*

Ariari eldu dautso eta aurrera:

—San Asensio'ko alkatearen amak Maria dau izena; aitak, barriz, Jose; bere osabak Prantxisko eta izekok Juanatxo, zelan dau izena alkateak, berak?

—Maria eta Jose ba'dira gurasoak, bera Jesus izango da...

—Ez.

—Zelan ba?

—Plorentiño.

—Eta, ori nondik asmatu dozu?

—Nik ez dot asmatu.

—Nondik dakizu, ba?

—Berak esan daustalako.

Oto aitaren argiz jantzita dabil munduan gure Ototxo.

ARRINDA'tar ANES

